

Eranskin honetan ezarritako jarraibideek deialdiaren oinarrietan jasotako garrantzi eta baliotasun bera izango dute.

Oro har, diru-laguntza bi alditan ordainduko da, honela:

**Lehen ordainketa**, diru-laguntzaren guztizko zenbatekoaren % 40ri dagokiona, honako dokumentazio hau jasotakoan eta egiaztatutakoan emango da:

❖ **Erakunde eskatzaileari buruz:**

- Bankuko datuen fitxa (ereduaren arabera)
- Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ordainketekin egunean egotearen ziurtagiria, ordura arte eguneratuak.

❖ **Kontratutako edo kontratatu beharreko pertsonari buruz:**

- Indarrean dagoen kontratatutako edo kontratatu beharreko pertsonaren NANaren kopia.
- Inskripzio-aldiei eta lan-egoerari buruzko txostena, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak kontratatu ondoren jaulkita.
- Langilearen lan-bizitzaren txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak kontratazioaren ostean egindakoa.
- Bilbon bizi dela eta berariazko kolektibo bateko kide dela egiaztatzen duen dokumentazioa, bidezkoa bada.
- Bilbao Ekintzak ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko eskatzen duen beste edozein.

Aldeko ebazpena jakinarazi ostean, baldin eta kontratazioa hasteko epemuga gainditzen ez bada, erakunde onuradunak, gehienez ere, **35 egun natural** izango ditu kontratazioa gauzatzeko, eta, bideragarria ez bada (inguruabar hori behar bezala justifikatu behar da), kontratazioa hasteko epe hori zabaltzeko aukera balioetsi ahalko da.

❖ **Kontratazioari buruz:**

- Behar bezala sinatutako eta betetako pertsonaren lan-kontratuaren kopia, baita Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari kontratu horretaz egindako komunikazioarena ere.
- Langilea Gizarte Segurantzari alta emanda dagoelako aitortpena.
- KDT, kotizazio-datuen txostena.

Adierazitako dokumentazioa, gehienez ere, 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, aldeko ebazpena jakinarazten den egunetik aurrera zenbatzen hasita, baldin eta kontratazioa ebazpena baino lehen egin bada. Kontratazioa ebazpenaren ostean egin bada, gehienez ere, lehen aipatutako 35 egun naturaleko epea izango du kontratazioa benetan gauzatzeko eta, data horretatik, 15 egun naturaleko epea dokumentazioa aurkezteko. Bilbao Ekintza EPELen Zuzendaritzak laguntza ezeztatuko du epe hauek bete ez izanez gero.

Lehen ordainketari dagokion dokumentazioa Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Sustapenerako Arloari (enplegua eta talentua) bidaliko zaio Bilbao Ekintzaren webgunean dagoen plataformaren bitartez.

**Azken ordainketa**, gainerako % 60koa, diruz lagundutako aldia amaitutakoan, honako hauek aurkeztu eta gero:

- ❖ Diruz lagundutako aldiko nominak eta bankuko ordainagiriak. Banku-transferentzien egiaztagiriak onartuko dira, baldin eta jaulkitzailearen kontua eta onuradunaren kontua zein izena ikus badaitezke. Nominak banku-txeke bidez ordaintzen badira, jaulkitzailearen kontuaren laburpena bidali beharko da. Bertan, dokumentuaren erreferentzia egon beharko da jasota, bai eta txekearen kopia bat. Txekea izenduna izan beharko da eta bankuan behar den moduan zigilatuta egon beharko da.
- ❖ Afiliatuaren lan-bizitzaren txostena, laguntza eskatu den aldian enpresan egon dela egiaztatzeko.
- ❖ LIZ (langileen izen-zerrenda), diruz lagundutako aldiko hilabeteei dagokiena.
- ❖ KLO (kotizazioen likidazio-ordainagiria) eta ordainketaren banku-ordainagiria, diruz lagundutako aldiko hilabeteei dagozkienak.
- ❖ KDT. Diruz lagundutako aldiko kotizazio-datuen txostena.
- ❖ Gizarte Segurantza eta Ogasunean ordainketak egunean izatearen ziurtagiria. Entitate onuradunek erakundeekin zorrik ez dutela ziurtatzeko, Bilbao Ekintza EPELek eskubidea izango du ziurtagiri horiek eskatzeko, errekeritu ondorengo data baten igorrita egon behar dutenak.

Dokumentazio hori, gehienez ere, 35 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, diru lagundutako aldia igaro ostean. Bilbao Ekintza EPELen Zuzendaritzak laguntza ezeztatuko du epe hauek bete ez izanez gero.

Dokumentazioa aztertu ondoren, Bilbao Ekintza EPELek jardueraren kostuei buruzko azken memoria bat egin beharko du. Entitate onuradunak memoria hori baliozkotu beharko du dirulaguntzaren likidazioa egiteko.

Azken ordainketari dagokion dokumentazioa Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapenerako Arlora (Enplegua eta Talentua) bideratuko dira, elektronikoki, dokumentazioa helbide elektroniko honetara bidaliz: [ayudascontratacion@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:ayudascontratacion@bilbaoekintza.bilbao.eus) . PDF formatuan aurkeztu beharko da (ez dira inolako irudi-programatan onartuko, jpg formatuan...).

***Dirulaguntza ematen den unean dagoeneko amaituta dauden kontratazioen kasuan, Bilbao Ekintza EPELek eskubidea izango du kontratazioaren eta azken ordainketaren dokumentazioa aldi berean eskatzeko, eta ordainketa bakarra egiteko.***